Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 11, asteartea — 112 — Martes, a 11 de junio de 2024



## ERRENTERIAKO UDALA

### Ingurumena

*Iragarkia*

2024ko maiatzaren 28an egindako Osoko Bilkuraren ohiko saioan, adostu zuen, 2004ko maiatzeko «Salmenta Ibiltariaren Udal Ordenantzaren berrikuspena» behin betiko onartzea. Testu horretan Hizkuntza Politikako eta Berdintasuneko Sailek egindako proposamenak eta iradokizunak sartu dira.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Hau da onartu den araudiaren testua:

*Kaleko salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzaren berrikuspena. Behin betiko onarpena. 2024ko maiatza.*

— Aurkibidea.

Sarrera.

I. titulua. Xedea eta aplikazio eremua.

II. titulua. Salmenta ibiltari motak.

III. titulua. Xedapen komunak.

I. kapitulua. Salmenta ibiltarirako baimendutako produktuak eta postuak.

II. kapitulua. Salmenta ibiltaria egitea.

III. kapitulua. Eskaerak.

IV. kapitulua. Salmenta ibiltarirako udal baimena.

IV. titulua. Saltzaile ibiltari gisa ibiltzen direnen eskubide eta betebeharrak.

V. titulua. Salmenta ibiltariko modalitateen funtzionamendua.

I. kapitulua. Aldizkako merkatuetan saltzea.

II. kapitulua. Noizbehinkako merkatuak, kaleko postuak eta kamioi-dendak.

VI. titulua. Tasak.

VII. titulua. Salmenta ibiltariaren zaintza eta ikuskaritza.

I. kapitulua. Salmenta ibiltarien zaintza eta ikuskaritza, kautelazko neurriak eta erantzuleak.

II. kapitulua. Arau hausteak.

III. kapitulua. Zigorrak.

IV. kapitulua. Prozedura.

Xedapen gehigarria.

Xedapen indargabetzailea.

Azken xedapena.

## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

### Medio Ambiente

*Anuncio*

En sesión ordinaria del Pleno de fecha 28 de mayo de 2024, acordó aprobar definitivamente la «Revisión de la Ordenanza Municipal de la Venta Ambulante» de fecha mayo de 2004, texto en el que se han incorporado las propuestas y sugerencias realizadas por los departamentos municipales de Política Lingüística e Igualdad.

Contra este acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

El texto de la normativa aprobada es el siguiente:

*Revisión de la ordenanza reguladora de la venta ambulante. Aprobación definitiva. Mayo 2024.*

— Índice.

Preámbulo.

Título I. Objeto y ámbito de aplicación.

Título II. Tipos de venta ambulante.

Título III. Disposiciones comunes.

Capítulo I. De los productos y puestos autorizados para la venta ambulante.

Capítulo II. Del ejercicio de la venta ambulante.

Capítulo III. De las solicitudes.

Capítulo IV. Autorización municipal para el ejercicio de la venta ambulante.

Título IV. De los derechos y obligaciones de las personas que ejerzan la venta ambulante.

Título V. Régimen de funcionamiento de las modalidades de venta ambulante.

Capítulo I. De la venta en mercados periódicos.

Capítulo II. Mercados ocasionales, puestos en vía pública y camiones tienda.

Título VI. Tasas.

Título VII. De la vigilancia e inspección de la venta ambulante.

Capítulo I. De la vigilancia e inspección de la venta ambulante, medidas cautelares y personas responsables.

Capítulo II. De las infracciones.

Capítulo III. De las sanciones.

Capítulo IV. Procedimiento.

Disposición adicional.

Disposición derogatoria.

Disposición final.

EK\CV GAO-I-2024-04208

SALMENTA IBILTARIA ARAUTZEKO ORDENANTZA

SARRERA

I. Errenteriako Udalak, 2011n, kalez kaleko salmentari buruzko udal ordenantza onartu zuen zuen.

Ordenantza hau indarrean egon den bitartean, haren aplikazio praktikoan hutsuneak antzeman dira.

Era berean, Arartekoak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren menpeko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak hainbat iradokizun egin zituzten ordenantzaren testua hobeto idatzi eta indarrean dagoen legeriari egokitzeko.

Ordenantza honen bidez, aurreko errekerimenduei erantzuteaz gain, haren testua indarrean dauden legezko xedapenetara egokitu nahi da, era horretan bermatzeko indarrean dagoen araudia zein lehia libre eta leialaren esparrua betetzen direla eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzen direla.

Alde batetik, autonomia-erkidegoko, hau da, maiatzaren 27ko 7/1994 Euskal Herriko Merkataritza Jardueraren Legea eta, bestetik, Txikizkako Merkataritza Antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legea.

Bestalde, arlo horretan eragina duen gainerako legeria sektoriala ere kontuan hartu da.

II. Merkatuak eta azokak topaleku sozialak izan dira eta dira oraindik ere. Bere garaian ospakizun eta aukera lekuak ziren eta gaur egun udalerri baten sare komertzialaren parte dira, eta enplegua sortzeaz gain udalaren merkataritza sedentarioa bera ere bultzatzen dute.

Merkatuak, zalantzarik gabe, gure gizartearen garapen ekonomiko eta sozialaren funtsezko zati izan dira eta dira.

Ukaezina da jarduera guztiak bezala, egungo errealitatera egokitu beharra dagoela, bai parte hartzen duten kolektiboek berek egiten dituzten eskaerei dagokienez, bai gaiari buruzko legeberrikuntzei dagokienez.

Udalari dagokio merkatu eta azoka horiek sustatzea, eta, ahal duen neurrian, merkataritza-jarduera honen garapenak eragiten dituen sentsibilitateak kontuan hartuko dituen lege-tresna bat antolatzea, bai merkatariei, bai saltzaile ibiltariei dagokienez, bai horien kontsumitzaileei eta erabiltzaileei dagokienez.

Kontsumitzaileek gero eta gehiago baloratzen dute lurralde baten nortasunari lotutako produktuak, ingurumena errespetatzen dutenak, eta kate handien mende dauden merkatuetatik kanpo produktu horiek eskuratzeko moduak bilatzen dituzte.

Merkatu horiek tokiko merkataritza sedentarioa bultzatzen dute; izan ere, beren produktuen eskaintzak baino merkataritza-jarduera handiagoa sortzen dute, dinamismo ekonomikoa areagotzen dute, enplegua eta aberastasuna sortzen dute udalerrian, eta gizarte-dinamismoa sustatzen dute, bisitari-kopuru handia erakartzen baitute.

III. Une honetan, aldizkako merkatu tradizionalen pixkanakako beherakada gertatzen ari da, belaunaldien arteko errelevorik lortzen ez duten postuen bajak ematen baitira.

Horrekin batera, elikagai galkorretarako postu tradizionalak ere desagertzen ari dira pixkanaka, elikadurakoak ez diren beste zerbitzu batzuen kalterako.

Udalak gaur egun duen erronka nagusia aldizkako merkatu horiek dinamizatzea da, horien funtzio soziala eta tokiko garapen ekonomikoari egindako ekarpena aipatu baitira dagoeneko.

Aldizkako merkatuetan eskaintzen diren zerbitzuen nahastea sustatzea ezinbestekoa da haiek galtzeko. Horrela, Udalak aldizkako merkatu horietan lanpostuak esleitzeko egiten dituen deialdi

ORDENANZA REGULADORA DE LA VENTA AMBULANTE

PREÁMBULO

I. El Ayuntamiento de Errenteria aprobó en 2011 una Ordenanza Municipal de Venta Ambulante.

A lo largo del tiempo de vigencia de esta Ordenanza se han detectado carencias en la aplicación práctica de la misma.

A su vez, tanto desde el Ararteko como desde la Dirección de Registros Administrativos y de Régimen Local, dependiente del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, se formularon una serie de sugerencias para mejorar la redacción del texto de la ordenanza y adecuarla a la legislación vigente.

Con la presente Ordenanza se pretende dar respuesta a los anteriores requerimientos y adaptar el texto de la misma a las disposiciones legales vigentes, garantizando el cumplimiento de la normativa vigente, el marco de la libre y leal competencia, y el respeto de los derechos de las personas consumidoras y usuarias.

Por una parte, la legislación autonómica, esto es, la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de Comercio del País Vasco, y por otra, la Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del Comercio Minorista.

Por otro lado, también ha sido considerada la restante legislación sectorial con incidencia en la materia.

II. Los mercados y las ferias han sido y son todavía un lugar de encuentro social, en su día lugares de festejos y de oportunidades, que hoy día forman parte del tejido comercial de un municipio, generador de empleo y también impulsor del propio comercio sedentario municipal.

Los mercados han sido y son, sin duda alguna, parte fundamental del desarrollo económico y social de nuestra sociedad.

Como toda actividad es innegable la necesidad de adaptarse a la realidad actual, tanto en cuanto a las demandas que realizan los propios colectivos implicados, como a las novedades legislativas sobre la materia.

Corresponde al Ayuntamiento fomentar estos mercados y ferias, y, en la medida de sus posibilidades, articular un instrumento legal que considere las diferentes sensibilidades a las que afecta el desarrollo de esta actividad comercial; tanto en relación a las personas comerciantes, vendedoras ambulantes, como en relación a las personas consumidoras y usuarias de los mismos.

Las personas consumidoras valoran, cada vez más, los productos ligados a la identidad de un territorio, respetuosos con el medio ambiente y buscan formas de adquirir el acceso a estos productos fuera de los mercados dominados por las grandes cadenas.

Estos mercados potencian el comercio sedentario local, ya que generan una actividad comercial mayor que la oferta de sus propios productos, aumentan el dinamismo económico, generan empleo y riqueza en el municipio y fomentan un dinamismo social al atraer un importante flujo de visitantes.

III. En este momento asistimos a un paulatino declive de los tradicionales mercados periódicos, con bajas de puestos que no logran un relevo generacional.

Se asiste también a una paulatina desaparición de puestos tradicionales destinados a alimentos perecederos en detrimento de otros servicios no alimentarios.

El principal reto actual para el Ayuntamiento es la dinamización de estos mercados periódicos, cuya función social y aportación al desarrollo económico local ya han sido mencionados.

Fomentar la mixtura de los servicios que se ofrecen en los mercados periódicos es vital para su pervivencia. De esta manera, las diferentes convocatorias públicas que desde el Ayunta-

EK\CV GAO-I-2024-04208

publikoetan arreta berezia jarriko da merkatuko eskaintza-nahaste hori errealitate izan dadin.

IV. Ordenantza berri honek merkatu eta azoka periodiko eta noizbehinkakoen erregulazioa egungo errealitatearen eskakizun berrietara egokitu nahi du, betiere indarrean dagoen araudia, lehia aske eta leialaren esparrua eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen errespetua bermatuz.

V. Merkatu eta azokez gain, Ordenantza hau noizbehinkako postuak instalatzeko jabari publikoko lurzorua okupatzeko baimen puntualei buruzkoa da.

I. TITULUA

XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honek Errenteriako udalerrian salmenta ibiltaria arautzea du xede.

Salmenta ibiltaritzat jotzen da: dendatik kanpo, jarri eta kendu egiten diren postu edo instalazio eta ibilgailuetan normalean edo noiz behinka saltzaileek egiten dutena.

Ordenantza honen ondorioetarako, merkataritzat hartzen da salgaiak erosi eta txikizka salduz negoziatu ohi duena.

Ordenantza hau ez zaio aplikatuko merkatariak ez diren pertsonek egindako salmentari. Salmenta mota horren erregulazioa dekretu bidez arautuko da kasu bakoitzean. Dekretu horretan, kasuan kasuko merkatuaren funtzionamendu-arau espezifikoak eta kasu lanpostu bat lortzeko baldintzak eta eskakizunak adieraziko dira.

Udalerri osoan debekatuta dago kalez kaleko salmenta, Ordenantza honetan aurreikusitako kasuetatik eta Udalak berariaz baimentzen dituen kasuetatik kanpo.

*2. artikulua. Udal-ahalak.*

Alkatetzaren ahalmena da, zuzenean edo eskuordetzaz, aldizkako eta noizbehinkako azoka txikiak eta ibilgailuen bidezko beste salmenta mota batzuk ezartzeko baimena ematea.

Era berean, azoka txikiak ezabatu, lekuz aldatu, postuen kopurua handitu eta murriztu, postuen okupazio-azalera aldatu, horietan salgai jar daitezkeen objektuak edo artikuluak aldatu, egoki iritzitako instalazio-ereduak ezarri eta azoka txiki bakoitzaren eremuan planteatzen diren arazo guztiak ebatzi ahal izango ditu.

II. TITULUA

SALMENTA IBILTARI MOTAK

*3. artikulua. Salmenta ibiltari motak.*

Ordenantza honen mende egongo dira salmenta ibiltari hauek:

a) Aldizka ezartzen diren merkatu tradizionalak edo berriak, espazio jakin batzuetan eta aldizkakotasun finkokoak (Erdialdeko merkatua, Beraun, Baserritarren azoka, etab.).

b) Herriko jaiak edo herri-ekitaldiak direla-eta edo bestelako jai-ekitaldiak direla-eta ezarritako merkatu edo postuak, udan edo neguan ezarritakoak, edo kirol-, kultura- edo jolas-ekitaldiak direla-eta jarritakoak (Sagardo eguna, Nekazaritza biologikokoa zoka, Landa azoka, Lore azoka, etab.).

miento se realicen para la adjudicación de puestos en estos mercados periódicos dedicarán especial atención a que esa mixtura de oferta en el mercado pueda ser una realidad.

IV. Esta nueva Ordenanza, pretende adaptar la regulación de estos mercados y ferias periódicos y ocasionales a las nuevas exigencias de la realidad actual, siempre garantizando el cumplimiento de la normativa vigente, el marco de la libre y leal competencia, y el respeto de los derechos de las personas consumidoras y usuarias.

V. Además de los mercados y ferias, esta Ordenanza se refiere a las autorizaciones puntuales de ocupación de suelo de dominio público para la instalación de puestos ocasionales.

TÍTULO I

OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el ejercicio de la venta ambulante en el término municipal de Errenteria.

Se entiende por venta ambulante la realizada fuera de un establecimiento comercial, por persona comerciante, bien sea de forma habitual u ocasional, en puestos o instalaciones desmontables, así como en vehículos.

A efectos de esta Ordenanza se considera comerciante a quien, de manera habitual, se dedica a negociar comprando y vendiendo al por menor mercaderías.

La presente ordenanza no es de aplicación a la venta realizada por personas no comerciantes. La regulación de este tipo de venta será regulada en cada caso mediante Decreto, en el que se señalarán las específicas normas de funcionamiento del concreto mercado de que se trate y las condiciones y requisitos para obtener un puesto en cada caso.

Queda prohibida en todo el término municipal la venta ambulante fuera de los supuestos previstos en la presente Ordenanza y de los supuestos en que específicamente el Ayuntamiento lo autorice.

*Artículo 2. Potestades municipales.*

Es potestad de la Alcaldía, que actuará directamente o por delegación, autorizar la implantación de nuevos mercadillos periódicos y ocasionales y otros tipos de venta mediante vehículos.

Igualmente podrá suprimir los mercadillos, trasladarlos de emplazamiento, aumentar y reducir el número de puestos, variar la superficie de ocupación de los puestos, modificar los objetos o artículos que pueden ser objeto de venta en los mismos, imponer los modelos de instalaciones que juzgue oportunos y resolver cuantas cuestiones se planteen en el ámbito de cada mercadillo.

TÍTULO II

TIPOS DE VENTA AMBULANTE

*Artículo 3. Tipos de venta ambulante.*

Constituyen modalidades de venta ambulante sujetas al ámbito de aplicación de la presente Ordenanza las siguientes:

a) Mercados periódicos de carácter tradicional o de nueva implantación, ubicados en espacios determinados y de periodicidad fija (Mercado de la zona centro, Beraun, Baserritarren azoka, etc.).

b) Mercados o puestos ocasionales instalados con motivo de fiestas o acontecimientos populares, de carácter local u otros eventos festivos, los establecidos en período estival o invernal, o con ocasión de acontecimientos deportivos, culturales o lúdicos (Sagardo eguna, Nekazaritza biologikoko azoka, Landa azoka, Lore azoka, etc.).

EK\CV GAO-I-2024-04208

Modalitate honen barruan sartzen dira hauek ere:

b.1. Artisautza-azokak, ezohiko izaera dutenak. Eta alkatearen edo horrek eskuordetutako organoaren erabaki bidez esango da non ipini, zenbat egunez edo zenbat postu jarriko diren.

b.2. GKEen edo irabazi-asmorik gabeko elkarteen aldizkako postuak, ongintzako ekintzetarako edo gizarte-intereseko helburuetarako funtsak lortzera bideratzen direnak. Alkateak edo horren eskuordetza duen organoak erabakia eman beharko du baimentzeko.

c) Kamioi-dendetan egiten den salmenta. Horretarako, garraioaren eta baimendutako gauzak saltzeko araudiaren arabera egokitutako ibilgailua erabiliko da.

III. TITULUA

XEDAPEN KOMUNAK

I. KAPITULUA. SALMENTA IBILTARIRAKO BAIMENDUTAKO PRODUKTUAK ETA POSTUAK

*4. artikulua. Sal litezkeen produktuak.*

1. Baimena eman ahal izango da eskumena duten agintarien ustetan osasunarentzat, pertsonaren segurtasunerako edo ingurumenarentzat arriskurik ez duten produktuak saltzeko.

2. Debekatuta dago osasunerako arriskutsuak diren, kontsumitzailea edo erabiltzailea edo ingurumena arriskuan jartzen duten eta indarrean dagoen legeriak berariaz debekatzen dituen produktuak saltzea.

3. Saltzen dituzten produktuen inguruko erregelamendu tekniko-sanitarioak eta gainerako araudiak bete beharko dituzte baimenaren titularrek.

*5. artikulua. Produktuen bermea.*

Salmenta ibiltarian saldutako produktuek sektoreko araudian ezarritakoa bete beharko dute.

Agintaritzako agenteek eta osasun eta kontsumoko ikuskatzaileek baldintza horiek betetzen ez dituzten produktuen kautelazko esku-hartzea egin ahal izango dute, eta, kasu horretan, premiaz, dagokion zehapen-espedientea irekiko du administrazio eskudunak.

II. KAPITULUA. SALMENTA IBILTARIA EGITEA

*6. artikulua. Salmenta ibiltarian aritzeko bete beharreko baldintzak.*

Errenterian salmenta ibiltarian aritu ahal izateko hau eskatuko da:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan alta emanda egotea, alegia, indarrean dagoen araudian horrela eskatzen denetan, eta atal horretan zorrik ez edukitzea.

2. Gizarte Segurantzan alta emanda egotea dagokion erregimenean eta kuotak ordainduta izatea.

Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzan enpresa gisa izena emanda egotea, langileak deklaratuta izatea eta kuotak ordainduta.

3. Higiene-osasunari buruzko baldintzak edo merkaturatutako produktuei eta instalakuntzei buruz erregelamendu zehatzek jartzen dituzten bestelako baldintzak betetzea.

4. Udalaren baimena edukitzea.

También se incluyen en esta modalidad:

b.1. Los mercados artesanales, cuyo carácter es extraordinario, fijándose su situación, periodicidad o número de puestos mediante resolución de Alcaldía u órgano delegado.

b.2. Los puestos ocasionales instalados por ONGs o asociaciones sin ánimo de lucro, destinados a recabar fondos para acciones benéficas o fines de interés social, que deberán ser autorizados por resolución de Alcaldía u órgano delegado.

c) Venta realizada en camiones tienda, para la que se utiliza un vehículo debidamente acondicionado de acuerdo a la normativa aplicable al transporte y venta de productos autorizados.

TÍTULO III

DISPOSICIONES COMUNES

CAPÍTULO I. DE LOS PRODUCTOS Y PUESTOS AUTORIZADOS PARA LA VENTA AMBULANTE

*Artículo 4. De los productos de venta.*

1. Podrá autorizarse la venta ambulante de aquellos productos que no conlleven riesgo para la salud, seguridad de la persona o el medio ambiente a juicio de las autoridades competentes.

2. Queda totalmente prohibida la venta de productos que conlleven riesgo para la salud, representen riesgo para la seguridad de la persona consumidora o usuaria, o al medio ambiente, así como todos aquellos que estén expresamente prohibidos por la normativa vigente.

3. Los titulares de las autorizaciones darán estricto cumplimiento a las reglamentaciones técnico sanitarias de los productos que comercialicen y al resto de la normativa que resulte de aplicación.

*Artículo 5. Garantías de los productos.*

Los productos comercializados en régimen de venta ambulante deberán cumplir lo establecido en la correspondiente normativa sectorial.

Los y las agentes de la autoridad y los y las inspectoras de sanidad y consumo, podrán proceder a la intervención cautelar de los productos que no cumplieren tales condiciones, incoándose en tal caso, con urgencia, el oportuno expediente sancionador por la administración competente.

CAPÍTULO II. DEL EJERCICIO DE LA VENTA AMBULANTE

*Artículo 6. Requisitos para el ejercicio de la venta ambulante.*

Para el ejercicio de la venta ambulante en el término municipal de Errenteria se requiere:

1. Estar dado de alta en los epígrafes correspondientes del impuesto sobre Actividades Económicas, cuando así se exija por la normativa vigente en esta materia, y encontrarse al corriente de su pago.

2. Estar dado de alta en el régimen de la Seguridad Social que corresponda, y al corriente de pago de la cuota.

En el caso de personas jurídicas, estar inscrito como empresa en la Seguridad Social, tener a sus trabajadores y trabajadoras afiliadas y estar al corriente en el pago de las cuotas correspondientes.

3. Cumplir los requisitos higiénico sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.

4. Disponer de autorización municipal.

EK\CV GAO-I-2024-04208

5. Ordaintzea, ordaindu beharreko tasak.

6. Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko asegurua izatea.

7. Salmenta ibiltarian edo ez-sedentarioan salduko diren produktuak arautzen dituen araudiak ezarritako baldintzak betetzea.

Horretaz gain, janariak eta produktu herbodietetikoak saltzeko baimenaren titularrak osasunaren alorreko araudiak ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

8. Ez urratzea salmenta ibiltariko postu bat edukitzeko baimena jasotzeko debekurik.

III. KAPITULUA. ESKAERAK

*7. artikulua. Eskaerak aurkeztea.*

1. Postu batean saldu nahi dutenek Udalean eskaera bat aurkeztuko dute eta bertan hau jarri beharko dute:

a) Eskatzailearen izena eta deiturak, edo sozietate-izena, hala badagokio.

b) Pertsona fisiko edo juridikoaren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).

c) Helbide fisikoa eta posta elektronikoa.

d) Instalazioen eta saltzen diren artikuluen deskribapena.

e) Pertsona juridikoak direnean, gainera hau adieraziko dute: saltzeko baimena duenaren kontura jardungo duen langile edo bazkidearen izena, helbidea eta NAN.

f) Zein toki, egun eta ordutegitarako eskatzen duen baimena, edo, hala badagokio, merkatuaren aldizkatasuna eta kokapen finkoa.

g) Okupatuko duen metro-kopurua, eta produktuak saltzeko furgoneta edo kamioi egokituren bat erabili behar duen.

h) Deialdi publiko batera aurkeztuz gero: eskabidea baloratzeko garrantzitsuak diren merezimenduak eta gainerako alderdiak, eta deialdi espezifikoan adierazten den dokumentazio zehatza.

2. Noizbehinkako saltzaileek postua jartzeko eguna baino hilabete lehenago eskatu beharko dute eskaera, gutxienez.

3. Eskariarekin batera, eskatzaileak ordenantza honetako 6. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Egiaztatu beharko da jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea eta ordainketak eguneratuak izatea, edo, hala badagokio, zergak ordaindu beharrekoen erroldan egotea, interesaturen esku utzita berak zuzenean egitea edo Udalari baimena ematea horrek egiaztatu dezan.

*8. artikulua. Debekua.*

Ez dute salmenta ibiltarian jarduteko baimenik eskuratuko, ez eta saltzailearen laguntzaile gisa jarduteko ere, egoera hauetakoren batean daudenek:

a) Sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan debeku horrekin zigortutakoak.

5. Satisfacer el pago de las tasas correspondientes.

6. Poseer un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos de la actividad económica.

7. Reunir las condiciones exigidas por la normativa reguladora del producto o productos objeto de la venta ambulante o no sedentaria.

La persona titular de la autorización de productos de alimentación y herbodietética deberá adicionalmente cumplir los requisitos que impone la normativa sanitaria.

8. No incurrir en alguna de las prohibiciones para poder optar a una autorización de puesto de venta ambulante.

CAPÍTULO III. DE LAS SOLICITUDES

*Artículo 7. Presentación de solicitudes.*

1. Las personas interesadas en explotar un puesto de venta presentarán ante el Ayuntamiento una solicitud en la que se hará constar:

a) Nombre y apellidos de las personas peticionarias, o razón social en su caso.

b) Número de Identificación Fiscal (NIF) de la persona física o jurídica.

c) Domicilio físico y correo electrónico.

d) Descripción de las instalaciones y de los artículos de venta.

e) En el caso de personas jurídicas, además se hará constar, referencia al nombre, domicilio y DNI del o de la trabajadora empleada o socio o socia de la entidad que vaya a hacer uso de la autorización por cuenta de ésta.

f) Lugar, fecha y horario o en su caso mercado de periodicidad y ubicación fija para el que se solicita la autorización.

g) Número de metros que precisa ocupar y si le es imprescindible utilizar una furgoneta o camión acondicionado para la venta de los productos.

h) En caso de presentarse a una convocatoria pública: méritos y demás cuestiones relevantes a efectos de valoración de la solicitud, y la concreta documentación que en la convocatoria específica se señale.

2. Las personas vendedoras ocasionales deberán presentar la solicitud arriba referida con una antelación mínima de un mes a la fecha de instalación prevista.

3. A la solicitud acompañará la documentación que acredite que la persona solicitante cumple los requisitos exigidos en el artículo 6 de la presente ordenanza.

La circunstancia de estar dado de alta y al corriente del pago del impuesto de actividades económicas o, en su caso, en el censo de obligados tributarios, deberá ser acreditada, a opción de la persona interesada, bien por ella misma, bien mediante autorización al Ayuntamiento para que éste verifique por sí mismo su cumplimiento.

*Artículo 8. Prohibición de concurrir.*

No podrán optar a la obtención de autorización para el ejercicio de la venta ambulante, ni siquiera como persona colaboradora o autorizada del vendedor o vendedora, las personas en las que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, o las sancionadas con esta prohibición en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

EK\CV GAO-I-2024-04208

b) Azken bi urteetan ordenantza honetako edo merkataritzaren arloko sektore-araudiko arau-hauste oso larriren bat egiteagatik zigortutakoak.

c) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako debekuren batean daudenak edo zigor irmo edo epairen batek hala aitortu dituenak.

IV. KAPITULUA. SALMENTA IBILTARIRAKO UDAL-BAIMENA

*9. artikulua. Baimena.*

Salmenta ibiltarian jarduteko, Udalaren baimena beharko da aurretik.

Baimen-kopurua mugatu beharrik ez dagoen kasuetan, kalez kaleko salmentan aritzeko, aldez aurretik baimen indibiduala lortu beharko da, norgehiagoka-prozeduraren mende jarri gabe, eta iraupena zehaztean, jabari-araudia betetzen dela eta espazio publikoen erabilerak bateragarriak direla bermatu beharko da.

Legez beharrezkoa den kasuetan, horretarako sustatzen den lehia-prozeduran ezarritakoaren arabera emango da baimena; prozedura horretan, publizitate-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak betetzen direla bermatuko da.

Nolanahi ere, lehia-prozedura horietan berdintasun-printzipioa hartuko da kontuan.

Prozedurak inola ere ezin izango du eskatu parte hartzeko ezinbesteko baldintza izatea udalerrian bizitzea.

Baimenaren iraupena mugatua eta zerbitzuaren ezaugarrien araberakoa izango da.

Aldizkatasun finkoarekin egiten diren merkatuetako baimenek iraupen mugatua izango dute; iraupen hori deialdian adieraziko da eta ez da automatikoki berrituko. Baimena iraungitakoan, zerbitzua emateari uzten dionak edo horri lotutakoek ez dute inolako abantailarik izango.

*10. artikulua. Baimenaren edukia.*

Udal-baimenak espresuki adierazi beharko du:

a) Baimenaren titularraren identifikazioa eta bere izenean jarduteko baimendutako pertsona edo pertsonena.

Pertsona fisikoak direnean, aurreko paragrafoaren ondorioetarako, hauek baimendu ahal izango dira: titularraren langileak, ezkontidea eta seme-alabak, baldin eta Gizarte Segurantzan alta emanda baditu.

Pertsona juridikoen kasuan, berriz, artikulu honen 1. paragrafoaren ondorioetarako, Gizarte Segurantzan alta emandako bazkideak eta langileak baimendu ahal izango dira.

b) Epe eta kokapen jakineko merkatuko postu-zenbakia edo jarduera burutu daitekeen tokia edo tokiak.

c) Baimendutako produktuak.

d) Jarduera burutzeko egunak eta orduak.

e) Okupatu beharreko lurzorua.

f) Instalazioa nolakoa den.

g) Baimenaren indarraldia.

Udalaren baimena eman ondoren, Udalak esleipenduna eta jarduera egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatu ahal izango ditu.

b) Las personas sancionadas en los dos últimos años por infracción muy grave prevista en la presente ordenanza, o normativa sectorial en materia de comercio.

c) Las que incurran en algún tipo de prohibición prevista por la legislación vigente, o así sea declarado por sanción firme o sentencia judicial.

CAPÍTULO IV. AUTORIZACIÓN MUNICIPAL PARA EL EJERCICIO DE VENTA AMBULANTE

*Artículo 9. Autorización.*

El ejercicio de la venta ambulante requerirá la previa obtención de la correspondiente autorización municipal.

En los supuestos en los que no exista necesidad de limitar el número de autorizaciones, el ejercicio de la venta ambulante requerirá la previa obtención de la correspondiente autorización individual, sin someter ésta a un procedimiento de concurrencia competitiva, debiéndose garantizar en la determinación de su duración, el cumplimiento de la normativa demanial y la compatibilidad de los distintos usos de los espacios públicos.

En los supuestos en que legalmente sea preciso, la autorización se otorgará de acuerdo con lo establecido en el procedimiento de concurrencia que al efecto se promueva, procedimiento en el que se garantizará el cumplimiento de los principios de publicidad, objetividad, imparcialidad, transparencia y concurrencia competitiva.

En todo caso, en estos procedimientos de concurrencia será considerado el principio de igualdad.

En ningún caso el procedimiento podrá exigir el deber de residencia en el municipio como requisito de participación.

La autorización que se conceda tendrá una duración limitada y proporcionada atendiendo a las características de la prestación del servicio.

Las autorizaciones de los mercados periódicos tendrán vigencia limitada, que se establecerá en las bases de la correspondiente convocatoria, y no dará lugar a un procedimiento de renovación automática ni conllevará, una vez extinguida la autorización, ningún tipo de ventaja para la persona prestadora cesante o para las personas especialmente vinculadas a ella.

*Artículo 10. Contenido de la autorización.*

La autorización municipal contendrá de forma expresa:

a) Identificación de la persona titular de la autorización, y en su caso, personas colaboradoras autorizadas.

En el caso de personas físicas, podrán ser autorizadas a los efectos del párrafo anterior, el o la cónyuge, hijos e hijas y personas empleadas de la persona titular siempre que éstas estén dadas de alta en la Seguridad Social.

En el caso de personas jurídicas, podrán ser autorizadas a efectos del párrafo primero de este artículo, los y las socias, y las personas empleadas por ella que estén dadas de alta en la Seguridad Social.

b) Número del puesto en el mercado de que se trate, período de validez y lugar o lugares en los que se puede ejercer la actividad.

c) Productos autorizados.

d) Fechas y horario del ejercicio de la actividad.

e) Superficie a ocupar.

f) Características de la instalación.

g) Período de vigencia de la autorización.

Una vez concedida la autorización municipal el Ayuntamiento podrá ejercitar las oportunas facultades de comprobación, control e inspección sobre la persona adjudicataria y la actividad.

EK\CV GAO-I-2024-04208

*11. artikulua. Nortasun-txartela.*

Noizbehinkako merkatu edo postuetan ez da nortasun-txartelik beharko, eta nahikoa izango da esleipendunak bere postuan edukitzea okupazioa eta jardueraren garapena baimentzen duen udal-ebazpenaren kopia.

Aldizkako merkatuetan, lanpostuaren titularrak jarduera betetzeko eta garatzeko baimena duela egiaztatu beharko du, jarduera hasi aurretik Udalak emango duen nortasun-txartelaren bidez. Txartel horretan honako hauek jasoko dira:

a) Saltzailearen identifikazioa, titularra edo baimendutako pertsona izan.

Baimenarekin batera, baimendutako pertsonaren argazki bat aurkeztu beharko da, karnet motakoa. Argazki hori esleipendunak aurkeztu beharko du udaletxean, baimena eman ondoren.

b) Saltzeko baimenaren balio-epea.

c) Baimendutako produktuak.

d) Postu-zenbakia eta jarduera burutzeko baimendutako tokia edo tokiak, egunak eta ordutegiak.

e) Postua jartzeko baimendutako metro kopurua.

f) Helbide bat, jarduera gauzatzen duen bitartean erreklamaziorik aurkeztuz gero horiek bideratu ahal izateko.

Identifikazio hori udal-agintariei erakutsiko zaie, eskatzen duten aldiro.

Era berean, artikulu honetan aipatutako nortasun-txartel hori ageriko toki batean jarriko dute postuetako titularrek.

Betekizun hau bete gabe utziz gero, eta baimenean adierazi gabeko produktuak salduz gero, merkataritza-jarduera etengo zaio; hala ere, zigor-espedientea hasi ahal izango da.

*12. artikulua. Segurtasun-, egonkortasun- eta sendotasun-baldintzak.*

Egiturazko elementu guztiak (oinarriak, zutabeak, estalkia eta abar) normalizatuak edo helburu horretarako prestatutakoak izango dira.

Loturak eta finkatzeak elementu sinpleen bidez egingo dira (mihiztadurak, ziriak, bridak eta abar erabilita). Saihestu egingo da bermerik ematen ez duten loturak (sokak, alanbreak eta abar).

Ez da lurzoruan modu finkoan lotzeko sistemarik erabiliko. Horren ordez bestelako eusteko elementuak erabiliko dira, zapatak edo egurrezko takoak esaterako, ertzik ez duten edo bisitari edo oinezkoei arriskurik sortzen ez dieten elementuak.

Ez da onartuko obretako aldamio edo antzeko muntaien bidez egindako muntaia inprobisaturik.

Estaldurek gorputz bakarra osatuko dute egituraren gainerakoarekin. Olana antzeko materialeko gaineko itxiera izanez gero, tenkatua egon beharko du, ur-putzurik egin ez dadin.

Baimenen titularrek Udalak jakinarazitako neurri teknikoak, segurtasunekoak edo bestelakoak bete beharko dituzte, bai postuen egiturari zein okupazioari dagozkionak, bai saltzen den objektuari dagozkionak.

Aldaketa ororen berri eman beharko diote Udalari, eta beren gain hartuko dute ez jakinaraztetik eratorritako erantzukizuna.

